

## TREBAKUNTZA 2023-01: ARI IZAN ETA EGON

**OHARRA:** asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

### OHIKO AKATSAK

1. \* Besteontzat jai eguna izan arren, brigadakoak lanean **daude**.
2. \* Gure herriko alkatea beti **dago** gauza bera esaten.
3. \* Azken bolada luzean gure talde kutuna txarto jokutzen **dago**.
4. \* Eguraldia ona iragarri zuten gaurko, baina euria **dago**.

### ZUZENKETAK ETA AZALPENA

Gai honi buruz berariazko araurik eman ez badu ere, hauxe da Euskaltzaindiak dioena:

Jokamolde nagusiaren arabera, erabat bereiztekoak dira *egon*, batetik, eta *ari izan/ibili/jardun*, bestetik. *Egon* estatikoa-edo da; *ari izan/ibili/jardun*, berriz, zerbait dinamikoa. Kontraesankorra gertatzen da mugimendua eskatzen duen ekintza *egon* aditzarekin adieraztea; horregatik, hala moduzkoa da **?lanean dago** esapidea; egokiagoak dira *lanean da* edo *lantokian dago*; *lanean ari da* edo *lanean dabil/dihardu*.

Baina, hori ez da Euskal Herri osoko jokamoldea. Batez ere mendebaldeko tradizioan, egonek badu berekin *ari izan*, *jardun* adiera ere: *Tenpluan otoitz egiten nengoen*. *Saltzen dagoena*. *Bazkaltzen dago*. Baina, **\*Korrika dago**. **\*Beti gauza bera esaten dago**. **\*Txarto jokutzen dago** modukoak ez dira onargarriak. Hauek dira egokiak: *Korrika doa / dabil / ari da*. *Beti ari da gauza bera esaten*. *Txarto jokutzen dihardu*.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.eus](http://www.uema.eus)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
946 279 195

Aialde 2  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943 260 372

Azoka Plaza  
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa  
20734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943 816 699

Egurats-gertakariez ari garenean, *ari du* da zuzena, ez egon: \*Euria dago (> Euria (haizea, elurra...) ari du / dihardu / da). *Iluntzen ari du*. Testuinguru horretan, onartzen du *ari izan* aditzak *du* aditz-erregimena, normalean *da* badagokio ere. Nolanahi ere, ekialdean batez ere, ez da arraroa honelakoak ikustea: *ikusten ari du*, *ura(ren) karriatzen ari du*, *(gizona)ren sendatzen ari du*.

Beraz:

1. Besteontzat jai eguna izan arren, brigadakoak lanean **dabiltza/ari dira**.  
Besteontzat jai eguna izan arren, brigadakoek lanean **dihardute**.
2. Gure herriko alkatea beti **dabil/ari da** gauza bera esaten.  
Gure herriko alkateak beti **dihardu** gauza bera esaten.
3. Azken bolada luzean gure talde kutuna txarto jokatzeko **dabil/ari da**.  
Azken bolada luzean gure talde kutunak txarto jokatzeko **dihardu**.
4. Eguraldia ona iragarri zuten gaurko, baina euria **ari du/da**.

\*\*\*\*\*  
\*\*\*\*\*  
\*\*\*\*\*

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin.

Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: [iratxe.udalak@uema.eus](mailto:iratxe.udalak@uema.eus) (Iratxe)

Hurrengora arte!

#### Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.eus](http://www.uema.eus)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
946 279 195

Aialde 2  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943 260 372

Azoka Plaza  
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa  
20734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943 816 699